

KOSTUEN EGITURA

Negozio guztietan bezala, kostuen egitura kostu finkoetan eta kostu aldakorretan banatuta dago. Beraz, gure kostuen egitura honela sailkatuta dago:

- **Kostu finkoak:** denda gisa online plataforma bat izango duen enpresa denez, hau da, gure denda bakarra izango den eta gainera webgune batetik salmenta egingo dinerez, gure kostu finkoak ez dira gehiegizkoak izango. Izan ere, lokalera mugatuko dira, eta bertan, gure produktuak disenatu, sortu eta zehazteaz gain, bidalketak egingo dira. Soldatak ere gehituko dira; izan ere, kontratu bat sinatzean, langile bakoitzak hilero kobratuko duen zenbateko diru kopuru finkoa zehazten da.
- **Kostu aldakorrak:** aurreko dokumentuetan aipatu dugunez, gure enpresak askotariko produktuak ditu; beraz, gure kostu aldakorrak horietako bakoitzera egokitzen dira. Hasteko, gure lehen kostu aldakorra lehengaia izango litzateke, dela zura makilentzat edo kristala, bitxiak eta harribitxiak, erlojuak edo bestelako bitxientzat. Ondoren, kostuak informatikari dagokionez. Gure enpresaren ezaugarria laguntza eskatu den lekuetara laguntza profesionala bidaltzea da. Beraz, ezinbestekoa da gure produktuek teknologia aurrerakoia izatea, eta teknologia horrek egunerapenak izango ditu enpresak duen esperientziatik abiatuta. Teknologia hori antzekoa izango da gure produktu guztietan; izan ere, gure produktu bakoitza bezero mota desberdinak betetzeko diseinatuta egon arren, ez dugu baztertzen bezero horiek beste laguntza mota bat behar izatea uneren batean. Horrelako kostuekin amaitzeko, produktuaren zehaztasunarekin zerikusia duen kostu guztia gehituko dugu, hau da, pintura eta antzekoak, baita paketatzearekin zerikusia dutenak ere, hala nola kutxa, bilgarria edo opari-txartela.